

3. TESTUA

Kirmen Uribek *Berrian* idatzitako iritzi-artikulu bat irakurriko duzu.

1. egitekoa

Irakurri testua eta ondorengo galderei erantzun. Testuan esaten dena kontuan izan, eta aukeratu erantzun zuzena.

Idatzi letra beheko laukietan, adibidean egiten den bezala.

Haur lotsagabea bezala



MaraTILa
KIRMEN URIBE

Idazleak jakin behar du inguruko gauzetan **arreta jartzen**, errealitatetik ateratzen gero paperera eramango duen hura. Zutabeak idazten aspertzen ez ote naizen galdetu eta nik ezetz erantzuten dut, bizitzak aurrera badarrai nire zutabeak ere ez direla bukatuko. Eguneroko gauzetatik ateratzen ditut eta idazteko gaiak. **Jendeari erreparatu** eta hortixetik.

Txikitan ere horrelakoxea izan bide nintzen, gauza guztiekin geratzen den haur jasanezin horietakoa. Halaxe esaten du behinik behin amak. Ingurukoei begira igarotzen nuela eguna, esaten zutenei, egiten zutenei erreparatzen.

Amak dio gauza gehiegi nekiela eta ez nekiela gainera isiltzen.

Esate baterako, kalean ezagun batekin topo egin eta gaixorik zegoen familiako bati buruz galdetzean gure amak «ondo dago» lehor bat erantzuten zuen, ez baitzuen nahi izaten herri guztiak jakin zezan gure etxekoen berr. Ez zen bera etxeko kontuak **aireratzen ibili zale**. Baina nik amaren erantzuna entzun eta «ez da egia» esaten omen nuen segidan amaren solaskidearen zorionerako, «honek hau eta bestea dauka» esaten nuen eta xehetasun guztiak kontatzen nituen. Errieta egiten zidan gero amak, berak gauza bat esaten bazuen kanpoko norbaiten aurrean ni isilik geratu behar nintzela, nahiz eta berak esaten zuena egia erdia izan. Baina nik ezin izaten nuen. Jolasten ari nintzen bitartean helduak hitz egiten entzuten nituen eta ezin isildu gero.

Ikasi dut denborarekin isiltzen, baina oraindik ere gustukoa dut begira egotea.

Azterketa deialdia: **2008ko maiatza**

HABE aldizkariaren 400. alearekin batera banatutako azterketa-eredua

Adibidea:

0. Idazleak nondik ateratzen ditu gaiak?
- Bere haurtzarora jotzen du.
 - Bizitzan gertatzen diren gauzetatik.
 - Beste zutabeetan irakurritz.
 - Jendeak bidalitako gutunetatik.

1. Nolakoa zen haurtzaroan?
- Mugitua, baina esanekoa.
 - Beti galdezka aritzen zena.
 - Adi-adi egoten zena.
 - Lasaia eta isila.

2. Zer egin zuen behin txikitan?
- Etxeko kontuak zabaldu.
 - Amak zioena baieztatu.
 - Auzokoaren berri eman amari.
 - Auzokoaren kontra gaizki esaka aritu.

3. Nola jokatzeko du orain idazle gisa?
- Txikitan bezala, gauza bera egiten du orain ere.
 - Arreta gutxiago jartzen du inguruko gauzetan.
 - Orain gehiago hitz egiten du lehen baino.
 - Orain badaki noiz ez duen hitz egin behar.

4. Zergatik dio idazleak "Haur lotsagabea bezala" izenburuan?
- Haur lotsagabeei nola jokatu irakatsi behar zaielako.
 - Bere lanean gorde dituelako haur-garaiko ezaugarri batzuk.
 - Pentsatzen duen guztia lotsarik gabe esaten duelako.
 - Ahaztu dituelako haur-garaiko ohitura guztiak.

Aukera ezazu erantzun egokia eta jar ezazu dagokion letra ondoko laukietan:

0.- b	1.-	2.-	3.-	4.-
--------------	------------	------------	------------	------------

2. egitekoa

Zer esan nahi dute testuan ondoren beltzez idatzita dituzun adierazpenek.

Aukeratu ezazu erantzun egokia eta idatzi beheko laukietan, adibidean egiten den bezala.

Adibidea:

0. ... inguruko gauzetan **arreta jartzen**... (2. lerroan)

- a. axolagabe jokatzen
- b. interesa jartzen
- c. denbora pasatzen

1. ... **jendeari erreparatu** ... (10-11. lerroan)

- a. jendeari erreparoak jarri
- b. jendeari baimena eskatu
- c. jendeari begira egon

2. Ez zen bere etxeko kontuak **aireratzen ibili zale** ... (27. lerroan)

- a. ez zela haizea hartzen ibiltzen etxekoekin
- b. ez zuela gustuko etxeko gauzen berri ematea
- c. ez zela ibiltzen etxekoei gauzak airean uzten

Aukera ezazu erantzun egokia eta jar ezazu dagokion letra ondoko laukietan:

0.- b	1.-	2.-
-------	-----	-----